



eman ta zabal azu



Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

HALA BEDI

ATE BAT JAKINTZARI



2022-23



Egilea: Maixa Utrera Puelles
Zuzendaria: Imanol Murua Uria

HALA BEDI: Ate bat jakintzari

Trantsizio garaian, Gasteizko kaleetako herri mugimenduek bultzatuta, aurten 40 urte beteko dituen irrati librea jaio zen. 40 urte hauetan munduaren inertzia eta teknologia berriei egokitzeko gaitasuna izan du Hala Bedi irratiak; baita hasierako urteetako errepresio garaiak gainditzeko ere.

—Walkiekin hasi omen ziren.

—Eta orain...

—Oraingoa ikusiko balute, ez lukete sinetsiko.

Hala Bedi irratiako erredakzioan eserita, Julen Mendizabalek iraganera bidaiatu du, 40 urte atzera, hain zuzen ere. Bi urte besterik ez daramatza Gasteizko irrati librean lanean, *Hizpidea* saioaren gidari gisa, baina «beteranoek» azaldu dizkiote antzinako koplak. «2021ean fitxatu ninduten ordezkoko gisa, *Hizpidea*-ko gidariak lana utzi behar zuelako», gogoratzen du Mendizabalek. Errotazioa da irratiaren barne antolaketarako gakoa: «Liberazioek 4 urte irauten dute, boterea eta erabakiak pertsona edo talde bakarrarengan metatu ez daitezten». Duela 40 urte bezalaxe, erabakiak asanbladetan hartzen dituzte Hala Bediko kideek gaur egun ere, baina irratiak aldaketa nabarmena jasan du ordutik hona.

Walkiekin emititzen hasi ziren esperientziarik gabeko gazte horien artean zegoen Juan Ibarrondo gidoilari eta idazlea. Gaur egun kolaborazioak egiten jarraitzen du *Suelta la Olla* magazinean, baina aspaldi utzi zion asanbladetara joateari. Hasierako urteak «etengabeko borrokan» eman zituztela aitortzen du Ibarrondok, baina horrek ez dio urte horietako «oroitzapen ederrak» izatea eragotzi.

—Beste inon entzun ezin zitekeen musika entzuteko bide bat izaten hasi zen: punka, rocka... Baina, azkenean, borrokatzeko prest zegoen lagun talde bat bilakatu ginen.

—Testuinguru politikoak kalte edo mesede egiten zizuen?

—Biak. Polizia eta gobernadore zibilak atzetik genituen beti. Azken batean, egiten genuena ilegala zen, eta liskar handiak genituen haiekin. Baina, aldi berean, irriaren itxierak eta garai hartako testuinguruak borrokatzeko indar handia ematen ziguten: manifestazioak, Poliziarekin gatazkak, Alde Zaharrean enfrontamenduak...eguneroko ogia ziren.

1983ko abuztuaren 4an egin zuen Hala Bedi irriak bere lehenengo emisioa. Gasteizko Jaiak zirela aprobetxatuz, bi lagun walkiekin jaitsi ziren Andre Maria Zuriaren enparantzara Zeledonon jaitsiera emititzeko asmoz. Walkiak kendu eta atxilotu egin zituzten, ordea. Hurrengo urteen iragarpena izan zen. Abuztuaren 6an txosnetarako emititu zuten berriz, baina, gero, sei hilabete eman zituzten uhinetatik kanpo, errepresioa zela eta.

Lehenengo urteetan Poliziaren presentzia nabarmena izan zen Hala Bediren egoitza ezberdinetan. Azken batean, irri libre eta piratek uhinak okupatzen zituzten eta interferentziak eragin zitzaizkien uhinetan. Lizentziarik gabe emititzea, beraz, ilegala zen. Irratia etengabe lekualdatzen ibili zen: Nueva Dentro kaletik Santo Domingora, handik Hedegile kalera, gero Zaramagako Auzo Elkartera, ostean Aiztogile kalera... Itxiera bezain lekualdatze egon ziren; modu klandestinoan emititzeko toki seguru baten bila. Itxiera bakoitzaren ostean, irri konbentzionalak okupatzen zituztela azaltzen du lbarrondok. Izan ere, Poliziak «kalte material handiak» eragiten zituen sarekada bakoitzean, eta jasandako erasoen berri emateko sartzen ziren beste irri-tietan. Ekipoak suntsitu eta materiala konfiskatu egiten zirenean, laster hasten zituzten diru bilketak berriro martxan jartzeko.

—Santo Domingon geneukan pisua itxi zigitenean, Radio Vitorian sartu ginen 50 bat lagun. Orduan Postas kalean zegoen egoitzan adierazpen ohar bat irakurri nahi genuen, besterik ez. Ertzaintzak gas toxikoak bota zituen gu handik ateratzeko; eta oso une gogorra izan zen. Jendea eskaileretatik behera korrika, hainbat lagun zaurituta, beste horrenbeste ospitalean...

Eskaileretan behera korrika ibili zen egun hartan Elo Mayo. Zaramagako Auzo Elkarteko eta talde feministako kidea izan zen; eta gaur egun ere, feminismoaren alde borrokatzen du Emakunderen *Berdintasun Proiektuak* aholkularitzan; enpresa, entitate zein erakundeei genero berdintasuna lortzeko aholku emanaz. Otxanda tabernaren kanpoaldean eserita, eguzkitako betaurrekoek ez dute lortzen begietan nabaritzen zaion ilusioa ezkatutzea. Hala Bediren hasierako urratsak ondo ezagutzen ditu Mayok, eta

horiek gogoratzea zaila egiten bazaio ere, ezin du ahaztu 1984ko maiatzaren 25ean Radio Vitorian jazotakoa.

—Denbora asko igaro da, baina inoiz ez dut hain gaizki pasa. Ke pote horiek, eta jendea ihes egiten. Ez dut inoiz ahaztuko.

—Zergatik zenuten harreman hori Poliziarekin?

—Guk ere ederki zirikatzen genituelako. Kamikaze batzuk ginen, gazteak, eta askatasuna nahi genuen. Haiek gure irratia ixten zuten bezala, guk ere haiek jarraitzen eta iraintzen genituen. Bi aldeko borroka zen.

Inork baino hobeto ezagutzen du borrokaren beste aldea Cesar Milano Arabako gobernadore zibil ohiak. Gaur egun bere jaioterrian bizi da, Villanueva de los Infantesen (Ciudad Real). Hala Bediren hasierako urteetan, PSOEek gobernatzen zuenean, Gasteizen bi gobernadore zibil izan ziren irratiarekin gatazkak izan zituztenak. Batetik, Alicia Izaguirre (2014an zendua) eta, bestetik, Cesar Milano. 1987an hartu zion lekukoa Milanok Izaguirreri. Irratiarekin harreman txarrena izan zuen Izaguirrek: lau aldiz agindu zuen Hala Bedi ixtea, eta astero bere deiak eta mehatxuak jasotzen zituzten irratiko kideek. Aitzitik, Milanok bitan itxi omen zuen irratia. Bere aurrekoak baino harreman hobea izan zuen komunikabidearekin, bere ustez, «garai lasaiagoak» egokitu zitzaizkiolako. Oso urruti ikusten ditu 90eko urte haiek gobernadore ohiak, baina ondo gogoratzen du Hala Bedi.

—Irrati libreek bi ertz zituzten. Batetik, hedabide baten papera betetzen zuten. Haiekin ados egon edo ez, talde zehatz bati zuzenduta zeuden, eta haien funtzioa, informatzea, ondo egiten zuten. Bestetik, ilegaltasunaren kontua zegoen. Urte haietan ez zegoen zalantzarik; bagenekien zer zen legala eta zer ez. Gobernadore zibil bezala hedabide hauek itxi behar genituen, baina inor ez zen ausartzen; iritzi eta prentsa askatasunerako eskubideak ez urratzeko.

—Orduan ez zenuen irratirik itxi?

—Horren frogarik ez dago. Oso zaila zen emisora bat ixtea. Administratiboki eta legalki itxi ahal baziren ere, aipatu dizkizudan bi askatasunak horren gainetik zeuden nire ustez. Inork ez zuen ardura hartu nahi, tentsio handia zegoen; eta, azkenean, badirudi asmatu genuela.

«Asmatu ala ez», Milano harro dago gobernadore zibil bezala «bakearen alde» egindako paperarekin: «ETAren terrorismoaren urterik gogorrenak 1980 eta 1981 urteak izan baziren ere, nire agintaritzan astebururo liskarrak zeuden; borrokak, atxilotuak».

Juan Ibarondo atxilotu horien artean egon zen. Hala Bediren bigarren itxiera salatzeko manifestazioan, Poliziak atxilotu eta furgonetan sartu zuen. Furgoneta martxan jarri orduko, Hala Bediko lagunak eta kaleko jendea ibilgailuari harrikadak botatzen hasi zirela gogoratzen du. 40 urte geroago, barre artean datorkio gogora furgonetan agenteekin izandako elkarrizketa:

—Nik gelditzeko eskatzen nien: «Baina ez duzue ikusten ederra egin duzuela? Zergatik ez gaituzue joaten uzten?» eta besteek ezetz eta ezetz, arazo bat zegoela eta haien ardura zela konpontzea. Gero, gainera, komisarian tratu txarrak jasotzen genituen. Ez nioke tortura deituko, baina beti ematen ziguten zaplazteko bat edo beste.

—Eta itxierak eta gero, nola bueltatzen zineten emititzera?

—Hala Bediren alderik onena zen itxiera bakoitzaren ostean laster elkartu eta berriz hasteko prestatzen ginela. Diru bilketak eta dirua lortzeko kontzertuak sarri antolatzen ziren, kalte materialei aurre egiteko. Funtsezko lana egiten zuten teknikariak ere bagenituen; eta, gainera, irratiarekin elkartasun handia zuen hiriak.

Diktaduraren osteko irrati libreak

Hala Bedi irrati libreen susperraldi garaian jaio zen. Izan ere, 70eko hamarkadan Italiako esperientziak —Radio Sicilia Libera, Radio Bologna per l'accesso pubblico— eredutzat hartuta, Euskal Herrian eta Espainian irrati libre ugari jaio ziren. Ipar Euskal Herrian ez bezala, Hego Euskal Herriko irrati libreak ixteko mehatxupearan bizi zirenez, babesa eta elkarlana ekarriko zizkien Irrati Libreen Koordinadora sortu zen.

1980ko hamarkadaren amaieran herri mugimenduen krisialdiak gogor astindu zituen irrati libreak. Babes sozialaren gainbehera eta pertsona militanteenen nekea nabariak ziren; eta urte gogorak izan ziren Hala Bedi zein beste irrati libreentzat.

1987an Espainiako gobernuak irrati libreak legalizatzeko prozesu bat martxan jarri zuen: Telekomuniazioen Ordenazio Arautegia (LOT). Ez zuen berehalako eraginik izan, baina 1989an «Plan Técnico Nacional de la Sonora en Ondas Métricas con Modulación de

Frecuencias» delakoa onartu zen; eta honek bai, Espainiako irrati libre asko legalizatzea lortu zuen. Ez zen hala izan Euskal Herrian, ordea. Lege honi esker ez baitzen Euskal Herriko irrati libre bat bera ere legalizatu.

Irrati bat baino askoz gehiago

Hala Bedi Gasteizko mugimenduei hegoak emateaz arduratu zen lehenetariko eragilea izan zen, baina ez bakarra. 1985ean *Resiste* aldizkaria jaio zen, 1984ko Pasaiaiko sarraskiaren ondorioz —martxoaren 22an Polizia Nazionalak Komando Autonomo Antikapitalistako lau kide berbertatik hil zituen, enboscada batean—, lagun talde batek hura sortzea erabaki baitzuen. Hurrengo urtean, Tas-Tas informazio agentzia alternatiboa sortu zen —hasiera batean egoitza Gasteizen izan zuena, eta, gero, Bilbora aldatu zena—, Euskal Herriko Irrati Librean Koordinadorak informazioa zentralizatzeko beharra deklaratu ostean.

Baina, bereziki aipagarria da, Hala Bedi jaio eta handik 5 urtera, gazte batzuek okupatu zuten Gasteizko apezpikutzaren eraikina: Gaztetxea. Hala Bedi bezalaxe, Gaztetxeak ere hasiera gogorra izan zuen. Poliziak, *sekretak* eta itxiera oharrak maiztasun handiz iristen ziren. Hala Bediko emisioa Gaztetxetik egin zen denboraldi batez; eraikina okupatu zen urte berean, 1988an. Abuztuaren 20an, Polizia Nazionalak 500.000 pezetako ekipoa birrindu zuen, Gaztetxea hutsik zegoela aprobetxatuz. Hasiera-hasieratik elkarlanean aritu dira Gaztetxea eta Hala Bedi; eta gaur egun ere, ekintza ugari elkarrekin antolatzen dituzte.

80ko hamarkadako gazteak tradizioaz nazkatuta zeuden; eta Espainian eta Euskal Herrian herri mugimenduen hazkundera nabarmena izan zen. Gauzak horrela, Hala Bedi irrati bat baino gehiago bilakatu zen: herri mugimendu bat. Gasteizko kaleetan jaio zen, modu organikoan, Elo Mayok dioenez, «jendearen askatasunerako nahiaren ondorioz».

—Imajinatu, 20 urte genituen, aske izateko gogoak. Trantsizioak eskaintzen zizkigun «askatasunak» ez zitzaizkigun nahikoa iruditzen, are gutxiago emakume bezala, eta ezkerreko mugimendu guztietako jendea Hala Bedira hurbiltzen zen bere nahiak asetzera.

Mayok, beste emakume batzuekin batera, *Adiós Penelope, adiós* programa egin zuen, «indarkeria matxista salatzeke eta horren inguruan sentsibilizatzeko». Garai hartan indarkeria matxista salatzeke zerbitzu publikorik ez zegoela dio Mayok, eta Zaramagako talde feministak salaketa horiek «nola edo hala» egiteko borrokatzen zuela: «Umeak

etxeetan banatzen genituen eta udalera hurbiltzen ginen. Beraz, egiten ari ginenari oihartzuna emateko bide bat zen Hala Bedi».

—Ez pentsa, ez zen oraingo gizartea. Hala Bediren barruan ere eztabaida handiak genituen. Guztiok nahi genuen prentsa eta iritzi askatasuna; baina askok askatasuna porro batzuk erre eta garagardo batzuk edatearekin nahasten zuten.

—Ez zintuzteten serio hartzen?

—Asanbladak oso gogorak ziren askotan. Inor ez zen ausartzen irрати libre batean mugak jartzera, noski. Baina ni asko haserretzen nintzen, gu gizartean zegoen norabide sexista kritikatzten ari ginelako, beste batzuek egundoko astakeria matxistak botatzen zituzten bitartean.

Eztabaidak gorabehera, Hala Bedi bozgoragailu bat zen, kaleko zarata eta gehiengo isilduari oihartzuna ematen ziona. Manifestazioak deitzeko eta jendea biltzeko gaitasun handia zuen; «sindikatuak baino handiagoa», Ibarrendoren ustez. Cesar Milanok, aldiz, ez du horrela gogoratzen. Gasteizko sindikatuen lanak txunditu egiten zuten gobernadore ohia, eta haren ustez, horiek izan ziren eragile politiko indartsuenak, «hedabideak baino askoz gehiago»: «Gasteizko langileriak ez zuen ekintza sindikalaren kulturarik, baina bertako sindikatuak txikiak izan arren, oso aktiboak ziren. Hedabideak informatzeaz arduratzen ziren, besterik gabe».

Pluraltasuna errege

Irrati ideologikoa izan arren, kolore eta ikuspegi oso ezberdinetako ideologiak biltzen ziren Hala Bedin: abertzaleak, komunistak, sozialistak... Eta pixkanaka mugimendu berriak ere sartzen hasi ziren; esaterako, antinuklearra eta antimilitarista. Pluraltasunak agintzen zuen irratian, eta, helburu komertzialak zituztenak edo irratiairen filosofiaren aurkakoak zirenak kenduta, edonork egin zezakeen —eta dezake— programa bat Hala Bedin. Pluraltasunaren froga bizia da Juan Ibarrendok eta beste kolaboratzaile batzuek sortutako programa: *El quid de la cuestión*.

—Ideia oso ezberdinak zituen jendea mahai baten inguruan esertzen ginen, eta debate oso irekiak genituen. Berun urteetatik atera berri ginen; eta, mundu polarizatu hartan, errepresioa gai zerrendan zegoen. Orduan, testuinguru hain nahaspilatsu horretan, lehen aldiz, bakeaz hitz egiten hasi ginen.

—Eta lortzen zenuten debate osasuntsu bat egitea?

—Askotan intentsitate handiz eta desadostasun osoz mintzaten ginen, baina bai. Hala Bedi inoiz ez da sektarioa izan; espektro ezkertiar, plural, antisistema eta alternatibo bat baizik.

—Gaur egun programa egitea posible izango litzateke?

—Ezberdina izango zen, ez? Gizarteak eta teknologiak irratia egiteko modua erabat aldatu dute. Garai hartan iritzi oso ezberdinak genituen baina errespetuz entzuten ere bagenekien. Gaur egun «monologista» asko dago, eta identitate oso baztergarriak sortzen ditu jendeak.

Herri mugimenduen esku

Hala Bediko 30. urteurrenaren liburuan Ibarrondok berak dio: «Guk txispa bakarrik jartzen genuen, erregaia kalean zegoen». Esaldi honek ondo laburbiltzen du Hala Bediren funtzioa zein zen: Gasteizko kaleetan lehertzeaz zegoen bonba eztandaraztea. Urteekin egoera soziopolitikoak apaldu den arren, helburu nagusia horixe da gaur egun ere. Hala Bedi tabernan eserita, Alaitz Amundarainek argi dauka irratia funtzioa: «Ahotsa ez dutenei ahotsa ematea. Topikoa da, baina helburu horrekin hasi zen, eta helburu berdina dauka gaur egun». 2006tik 2016ra ibili zen Amundarain Hala Bedin *A desalambrar* programan lanean, eta noizbehinka kolaborazioak egiten ditu orain.

—Nik uste dut beti egon dela sare bat. Babes bat. Eta belaunaldiz belaunaldi lortu da beti transmisioa hor egotea. Aldatzea ere garrantzitsua da, baina herri mugimenduekin erabat kontaktuan mantenduz. Hala Bedi haienezako bozgoragailua da; baina, aldi berean, mugimenduen babesa eta haiek lantzen dituzten gaiak dira irratia bizirik mantentzen dituztenak.

Julen Mendizabal bat dator herri mugimenduen eta irratia elkarrekintzarekin: «Zuzenki lotuta daude. Nire ustez Hala Bedik zutik jarraitzen du Gasteizen herri mugimenduen bizitza propio oso indartsua eta oso autonomoa egon delako». 80ko hamarkadako tentsio garaiak atzean geratu badira ere, Mendizabalek irratia libreak «inoiz baino beharrezkoagoak» direla uste du.

Krisiaren aurrean eraberritzea

90eko hamarkadan iritsi zen irrati libreen krisia. Lagun talde batzuen ilusioz eta lan gogorrez hasitako proiektuak kolokan egoten hasi ziren. Errepresioa, errelebo falta eta gizartearen inertzia izan ziren, beste arrazoi askoren artean, gainbeheraren eragile. Irrati libre askok ez zuten baliabiderik izan krisiari aurre egiteko; baina Hala Bedik 40 urteko bidea egitea lortu du; bidean topatutako oztopo guztiak gaindituz. Juan Ibarrodok argi dauka «jendearen irmotasunari esker» biziraun duela hedabideak.

—Suposatzen dut ez dagoela arrazoi bakarra. Duela urte batzuk, nola edo hala aurrera egiteko nahia zuten burugogor batzuei esker jarraitu zuen irratiak bizirik. Jende horrek bere bizitzaren ordu asko eskaini dizkio Hala Bediri, eta proiektua aurrera eramatea erronka pertsonala zen.

—Eta orain?

—Milaka pertsona pasa dira Hala Beditik. Uste dut pixkanaka semiprofesionalizazio batera iristeko gai izan direla, eta horrek, asko lagundu duela bizirauteko. Gainera, irratiak beti izan du aldaketei egokitzeko gaitasun handia.

—Zein aldaketa?

—Antolaketa asanblearioa, adibidez, gaur egun ezin da 80ko hamarkadan bezain modu erradikalean eraman. Hala Bedi herri mugimendu bat zen, irrati bat baino askoz gehiago, eta, orain, ezinezkoa izango litzateke erabakiak hain modu erradikalean hartzea. Hori bai, helburu komertzialen debekua eta boluntariorza bezalako lerro gorri batzuk errespetatu eta mantendu dira.

Eraberritzeko beste modu bat, gainerako irratiekin elkarlanean aritzea izan da. Hasieratik egon zen harreman estua irrati libreen artean, baina 2001ean hartu zuten batasunerako erabakirik garrantzitsuena: Arrosa Sarea osatzea. Arrosa herrian (Nafarroa Beherea) bildu ziren irrati libre ezberdinetako kideak, eta edukiak eta emisioa partekatzeko sare bat osatu beharra zegoela adostu zuten.

Proiektu berri guztiek bezala, hasieran arazo ekonomikoek ezbaian jarri zuten Arrosaren jarraikortasuna; baina, Aitziber Zapirainen ustez, beti egon da «talde izaera sendoa» Arrosaren biziraupena bermatzeko. Zapirain 2022ko urrian sartu zen Arrosako

koordinazioan; baina 17 urte daramatza Antxeta Irratian lanean, Hendaian. Sarearen sorreran parte hartu ez zuen arren, ondo daki horren helburua «euskaraz ari diren irrati libreek elkarri laguntzea» dela. Denborarekin, edukietaz gain, baliabide teknikoak partekatzen hasi ziren hedabideak; eta gaur egun, 25 irratik osatzen dute sarea. Irrati ezberdinek elkarlanean oinarritzen den magazin bat ekoiztea lortu dute Arrosari esker: *Zebrabidea*. Horren arrakastatsua izan da, ezen 2015ean Argia saria jaso zuen. Arrakastaren gakoa azaltzen du Zapirainek: «Zebrabideak Oiartzunen ekoiztako edukiak Gasteizen entzuteko aukera ematen dizu; Euskal Herriko aktualitate soziala, kultrala eta politikoa jarraitzeko».

Legaltasuna eta lizentziak

Arrosa sareak irratiaren arteko elkartasuna bultzatzen du, baina ez, ordea, haien legalizazioa. Lizentzien kontua arazo bat da oraindik ere Hala Bedirentzat. Mendizabalek ondo ezagutzen du egungo egoera.

—Hala Bedi 107.4 diala lizentzia gabe okupatu zuen; eta gaur egun ere, lizentziarik gabe jarraitzen du.

—Orduan, nola jarrai dezake emititzen?

—Orain alegalak garelako. 2013an PSOEk PPrekin laguntzarekin gobernatzen zuenean; kulturako sailburuak, despiste batean, euskaraz emititzen zuten irrati komunitarioei bultzada bat emateko lehiaketa publikoa aterako zela esan zuen. Hala Bedi aurkeztu egin zen, eta lehiaketa irabazi genuen, baldintza guztiak betetzen genituelako.

—Eta lizentzia?

—PSOEren gobernuak nork irabazi zuen ikustean, uko egin nahi izan zion lizentzia emateari. Azkenean, epaitegietan irabazi genien; eta, Hala Bedi 2-rentzako lizentzia daukagu.

Hala Bedi 2 euskara hutsezko kanala da. Streaming bidez entzun daiteke Hala Bediren webgunean, baina «lizentziatzeko prozedurak oso luzeak direnez, interneten bidez besterik ez da emititzen». Hala ere, euskara hutsezko kanala uhinetara «laster» igarotzea espero du Mendizabalek.

—Orain PSOEek eta Podemosek dokumentazio zehatz bat aurkezten ez duten irratia libre guztiak ilegal deklaratu dituen lege bat martxan jarri nahi dute. Gu alegaltasunean bizi garenez, ez gaude kezkatuta; baina, baldintza jakin batzuk betetzen ditugula frogatu behar dugu ilegal deklaratu ez gaitzaten. Guk erraz froga dezakegu hori guztia —ez dugula interferentziarik egiten, bost urte baino gehiago daramagula emititzen...—, baina, oraindik ez daukagu argi legalizazioaren bila joango garen ala ez.

«Inboluzio ideologikoa»

Lizentzien kontua korapilatsua da oso. Aitziber Zapirainek lizentzien auzia Arrosa sarearen bidez kolektiboki konpontzea «bidera ezina» dela uste du: «Legebiltzarrean lizentzien inguruan galdera komunak prestatzen ditugu, baina gero, lizentzien prozedura indibiduala da; irratia bakoitzaren paperak eskatzen baitituzte». Hala ere, irratia edozein zalantzarekin elkarren artean laguntzeko prest daudela azpimarratu du: «Auziaren ezohikoa da; baina Arrosan talde izaera mantentzen da».

Amundarainek, bere aldetik, gizarte honetan 'Ni'-a geroz eta garrantzitsuagoa dela aitortzen du, eta argi dauka talde eragileetan «belaunaldien aldaketarako arazo handia» dagoela.

—Oraintxe bertan borrokalariak jubilatuta dira. Nik beti esaten diet: «Eskerrak zuek zaudetela». Beti daude babesa emateko prest; manifestazio guztietara doaz; ikasleen grebetara ere bai. Eta, noski, hori borroka egiteko kultura izan dutelako da. Denontzako onuragatik borrokatzen dute, modu kolektiboan, eta, belaunaldi berriak, indibidualistagoak gara, bai... baina esperantza daukat beti egongo dela norbait kontrolaren kontra eta beste bide baten bila. Ez gaitzezen izan horren ezkor.

Ezkor agertu da Mendizabal kolektibotasunaren inguruan, hain zuzen. Euskal Herrian «inboluzio ideologikoa» egon dela aldarrikatzen du, pentsatzeko eta borrokatzeko geroz eta ardua gutxiago dugulakoan.

—Urteen poderioz, ideia erradikalen aurrean ideia neoliberalak nagusitu dira. Kolektibotasuna gutxinaka suntsitzen joan da, eta indibidualizatzen. Horren ondorioz, hasierako lur emankor hori sikatzen joan da.

—Orduan, zergatik jarraitzen du bizirik Hala Bedik?

—Herri mugimenduek bizirik jarraitzen dutelako. Urteek kaltea eman diotela lur emankorrari? Bai. Baina Hala Bediren iragana, oraina eta etorkizuna herri mugimenduen iragan, orain eta etorkizunarekin lotuta dago. Herri mugimenduak desagertzen badira, irratia haiekin desagertuko da. Oso lotuta daude; boluntarioak eta *halabelarriak* bezala.

Halabelarriak irratia-aren iturri ekonomiko oso garrantzitsua dira. Mendizabalen aburuz, «hilean irratia-ri sosa batzuk ematen dizkion jendea» irratia-ri autogestionatu batean «ezinbesteko pieza» dira.

Halabelarriez gain, eta haiei zuzenki lotuta, Hala Bedi taberna dago. 2001ean ireki zen, autofinanziazio-arako, eta erakusle-ihor gisa erabiltzeko. 2004an krisiak etorkizuna lausotu zion, ordea. Irratiko kideentzako lan zama handiegia zen kazetari eta tabernari lanetan aritzea; eta, gainera, soldatak atzeratu egiten ziren, ordaintzeko dirurik ez zegoelako. Azkenean, aurrera egitea lortu zuen, baina 2011n tabernaren kudeaketa irratitik kanpo uztea erabaki zuten langileek. Irratiak zorrak ordaindu eta, 2012tik aurrera, bide ezberdinak hartu zituzten irratia-ri eta tabernak. Hala ere, 2023an, hein handi batean, lotuta jarraitzen dute. Tabernan egiten diren kontzertuak, tailerrak eta formakuntzak bien elkarlanaren fruituak dira; eta bildutako dirua bi zerbitzuak bultzatzeko erabiltzen da.

Komunitatea eta taberna ez ezik, irratia-aren errentagarritasuna zaintzeko beste klabe bat boluntarioritza lana da. Hala Bedin 59 programa ekoizten dira gaur egun —euskaraz, gaztelera-ri, eta galiziera-ri—, eta langileen artean soilik 6 liberatu daude. Ehundaka boluntario-oren lanaz eramaten da aurrera irratia. Halabelarriak bezain garrantzitsua den bolondres sarea zaindu beharra dagoela aldarrikatzen du Mendizabalek.

—Komunitate lan bati esker funtzionatzen dugu, eta ez bakarrik irratian. Egia da boluntario gehienak podcastak edo kolaborazioak egitera datozela Hala Bedira; baina txosnak eta formakuntzak bezalako ezohiko eginkizunetan ere ezinbestekoak dira.

Etorkizun oparoa

40 urte igaro diren honetan, atzera begiratzeak nostalgia eragiten die batzuei; harrotasuna besteei; barregura, akaso, hasiera-hasieran egon zirenei. Baina etorkizunera begiratzeak kezka ezberdinak sortzen dizkie Hala Bediko kide eta kide ohiei. Hala ere ondorio antzeko batera iristen dira guztiak: Hala Bedi eta irratia-ri libreek etorkizun oparoa dute. Alaitz Amundarain baikor agertu da irratia-aren etorkizunaz.

—Inoiz baino etorkizun gehiago dute irрати libreek. Ohiko hedabideak geroz eta kontrolatuagoak daude, eta Hala Bedi libreagoa izateko alternatiba bat da. Hala Bediren barruan badaude oinarri batzuk, noski. Beti dago kontrolen bat, baina libre izate horrek gauzak zure erara egiteko aukera ematen dizu.

Kontrolaren aurrean alternatibak bilatzearen inguruan, antzeko iritzia dauka Juan Ibarrodok: «Hedabideen atzean multinazionalak daude, diskurtso homogeen bat eraikitzen. Hala Bedi bezalako medioek kontrapisua egiten dute». Ibarrodok bezalaxe, Hala Bediren lehenengo urteak bizi izan zituen Elo Mayori esperientziak esaten dio etorkizun oparoa duela irратиak.

—Nik hasiera batean pentsatzen nuen ez zuela inongo etorkizunik izango; eta, azkenean, begira! Gasteizen erabat finkatuta dagoela uste dut. Arazo bakarra Hala Bedi aurrera eramateko jenderik ez egotea litzateke.

Julen Mendizabal bat dator Mayorekin. Irratiaren bi garai oso ezberdin bizi izan dituzte; baina, argi daukate irратиaren etorkizuna herriaren eskuetan dagoela. Mendizabal izan da kritikoena gizartearen inertiarekin: «Lan militantearen kultura desagertzearekin batera desagertuko da Hala Bedi».

—Euskal Herrian despolitizazio prozesu handi bat sufritzen ari gara. Orduan, guzti hori muturrera eramanda, uste dut Hala Bedi existitzen jarraitzen badu, pixkanaka, eduki asko irрати komertzialen edukietara hurbilduko direla.

—Ez dago alternatibarik?

—Zorionez, Araban eta Gasteizen ehundura oso potentea dago herri mugimenduetan. Hemen lan egiten duen jende gehiena mugimendu batean edo bestean inplikaturik dago; baina, beste asko ez. Sistemarekin kritikoa den jendea ere badago, baina, aldi berean, sistemaren komunikabideak kontsumitzen dituena. Eta gero esaten dizuna: «Nik filtroarekin begiratzen dut». Baina ez dira konturatzen 10 urte daramatela filtroarekin begiratzen, eta dagoeneko filtro horretan zulo ikaragarri bat egin dietela.

—Orduan Hala Bedi etorkizunik al du?

—Bai. Nahiko nuke irрати hau tresna bat izatea, jende asko politizatzeke eta beste mota bateko bizi eredu eta ikuspegi bat emateko. Niretzako hemen lanean hastea lasterbide

bat izan da jende zoragarria ezagutzeko, eta Gasteizko eszena musikalaz eta sozialaz jabetzeko. Irrati hau ate bat da. Ate bat jakintzari.

**«Herri mugimenduak
desagertzen badira, irratia
haiekin desagertuko da»**

JULEN MENDIZABAL

**«Itxiera bakoitzaren ostean
laster berriz hasteko
prestatzen ginen»**

JUAN IBARRONDO

1. ZATIDURA

«Marka propioa, zigilu berezia da Hala Bediren bereizgarria»

Txema Ramirez de la Piscina - Kazetaria eta ikertzailea



Txema Ramirez de la Piscina Hala Bedi irratian, 2017ko irailaren 29an (HALA BEDI)

Hala Bedi irratiak 40 urte beteko ditu aurten. 40 urte uhinak okupatzen. 40 urte medio konbentzionaletatik aldentzen den formula bat eskaintzen. Gasteizko kaleetan jaio zen hedabide alternatiboak ez du bide erosoan izan. 1983tik hona errepresio garaia, krisiak eta gizartearen inertziak gainditu behar izan ditu gaur egun alegaltasunean emititu ahal izateko. Irratiaren ibilbidea gertutik jarraitu du Txema Ramirez de la Piscina kazetari eta ikertzaile gasteiztarak. Bere ikerketa adar nagusien artean daude komunikabide alternatiboak; eta 2010ean hauen inguruan egindako ikerketa kaleratu zuen Latina aldizkarian. Bertan, irrati libreen hasierako testuinguru soziopolitikoaz aztertzeaz gain, Hala Bediri buruzko datu eta hausnarketak egin zituen. Gasteizen jaio zen komunikabide alternatiboaren alde positibo eta negatiboak aztertuz, irratiaren erradiografia osatua egin zuen.

Hala Bedik, sortu zenetik, inoiz ez du helburu komertzialik izan. Publizitatea ez sartzeaz gain, zer da irrati libre bat irrati konbentzional batetik bereizten duena?

Sortze eta garapen prozesuak desberdinak dira, baita helburuak ere. Hala Bediren kasuan, oso modu militante eta baliabide gutxirekin sortu zen, Gasteizen estatuaren errepresioak gogor jotzen zuen une batean. Talde desberdinek egin zuten bat.

Baina, irrati libre eredu asko daude. Denak ez dira berdinak. Garapena bermatu nahi badute, onena da Hala Bedik egin duena egitea; alegia, bazkide sare zabal bat osatzea, bere inguruan konplizitate asko biltzea eta, normalean, irrati edota komunikabide estandarretan ahotsa ez duten kolektiboek adierazteko aukera ematea. Horrexek ematen dio komunikabide libre bati balio erantsia. Horrexek ere sortzen du komunitatea.

Mainstream diren komunikabide nagusiak talde politiko eta ekonomikoen adarrak dira. Azken urteotan inoiz baino nabarmenagoa da hori. Komunikabide libreek bestelako eredu komunikatibo eta sozialak defendatzen dituzte; edo beharko lukete, bederen. Hori da beren balioa. Hori da beren altxorra. Baina, kasu: kale egingo lukete gutxieneko kalitatezko berme batzuk bermatzen ez badituzte. Are gehiago orain: audientziak —modu orokorrean hitz eginda— formatu laburrak estimatzen ditu, “kalaka edo asper-festa” astunetatik paso egiten du. Horregatik, komunikabide libreek mamiaz gain, azala ere zaindu behar dute.

Hala Bedi sortu zenean Gasteizen herri mugimendu indartsuak eta oso ezberdinak sortzen ari ziren. Nola uste duzu lortu zutela hainbeste ideia desberdinentzako topagune bat sortzea?

Urtez urte beren komunitatea egonkortzen asmatu dute. Ikuspuntu zabal batetik egin dute lan, eredu sektarioetatik at. Oso profil desberdineko jendeari programazio zabala eskaintzen asmatu dute. Ez da soilik talde feminista, antimilitarista edo internazionalisten txokoa, baita musika eredu eta mota desberdinak maite dituen jendearen irratia ere. Horrexek egin du libre, berezi eta desberdina. Sektore alternatiboen erreferentzia da.

Zergatik Gasteiz?

80ko hamarkada Gasteizen oso mugitua izan zen. Belaunaldi gazte berri batek esfera publikoa hartu behar zuela erabaki zuen. Asper-asper eginda zeuden Gasteizi egokitu zitzaion militar eta fraideen kutsu etiketa zahar harekin. Gogaituta zeuden Elizak eta burgesiak zeukaten presentziarekin baita, noski, Poliziaren errepresioarekin ere. Horren barruan kokatu behar dira orduan antolatuta ziren “prozesio ateoak”, Gaztetxearen sorrera

baita Hala Bediren jaiotza bera ere. Maila guztietan isla izan zuen mugimendua izan zen, kaleko agerpenetan, politikan, kulturean, musikan eta arte ederretan. Ordukoak dira, esaterako, Hertzainak, La Polla Records (hauek Aguraingoak baziren ere), Cicatriz, Potato eta beste hainbat talde. Erresistentzia eta matxinada mugimendu eraldatzailea izan zen.

Zer funtzio zuen irratia hasieran?

Agintean zegoen botereari hartzak erakustea, dena kuestionatzea, probokatzaileria izatea, agenda publikoan eragina izatea, ahots gabekoei ahotsa ematea, Polizia eta estatu aparatuek zorrotz kritikatzeko; hitz batez, beste komunikabideetan topatzen ez zena, eskaintzea.

Zein funtzio du orain?

2023ko gizartea ez da 1983koa. Gauzak asko aldatu dira; batzuk onerako eta beste batzuk txarrerako. Hala Bedi gizartearen eboluzioari ongi egokitu zaion proiektua da. Hori ere bada bere iraupenaren gakoetako bat, gizartearen eboluzioa interpretatzen jakitea. Egun Hala Bedi ez da probokatzaileria, ez da hain apurtzailea, gizartea bera ere aldatu delako, baina orduko funtzio sozial berbera betetzen du: ahots gabekoei ahotsa ematea.

Irrati ilegala izanik, Poliziarekin eta gobernadore zibilekin izandako liskarrak bidezkoak ziren?


Legaltasunaren bermea agintek ematen du. Batzuetan agintea ez da demokratikoa edo hutsune asko ditu. Duela 40 urte euskal gizartea borborka zegoen. PSOEk gobernatzen bazuen ere, gabezia demokratikoak handiak ziren. GAL sortu zen, atxiloteta eta tortura kasu asko zeuden eta ETAk ere gogor jotzen zuen. Hildako asko eragin zituen. Giro makurra zegoen. Araban emakumezko lehen gobernadore zibila izan genuen: Alicia Izaguirre, PSOEk izendatuta. Oker ez banaiz, bera izan zen lehendabiziko aldiz Hala Bedi itxi zuena. Legala zen? Seguru baietz. Zilegia? Ez dut uste, adierazpen askatasunaren aurkako neurria izan zen, sektore errebelde baten ahotsa isilarazteko. Baina ez zuten lortu.

Zergatik ez zuten lortu? Zergatik biziraun du Hala Bedik?

Nire ustez, gakoak hauek izan daitezke: lantalde zabala lortu, komunitatea ehundu, konplizitateak bildu eta produktuaren kalitatea hobetzen asmatu izana.

Hala Bedi beste irратиengandik bereizten duen ezaugarriren bat?

Marka propioa, zigilu berezia. Egun Hala Bediren bideoak, esaterako, asko zabaltzen dira, ikus-entzunezko ekoizpena oso ona delako eta horregatik Hala Bediren ohiko audientziaz harago iristen dira.



**«Hala Bedi gizartearen
eboluzioari ongi egokitu
zaion proiektua da»**

2. ZATIDURA

Garoñako gas ihesa, Wellesen estilora

Bidaia dezagun 1938ko urriaren 30era. Columbia Broadcasting System (CBS) irratian, 23 urteko gazte batek, gau oso batez, Estatu Batuak hankaz gora jartzea lortu zuen. Orson Welles aktoreak eta Howard Koch gidoilariak Herbert George Wellsen *The War of the Worlds* obra egokitu zuten, hura *The Mercury Theatre* drama-seriean emititzeko asmoz.

Jatorrizko obrak gizarte britainiar kontserbadorea kritikatzeko zuten; eta nola edo hala bere inperioa hedatzeko zuten nahia. Koch eta Wellesen egokitzapenean, berriz, estralurtarrak Estatu Batuetara iristen ziren, herrialdea konkistatzeko asmoz. Wellesek interpretazioa hasi baino lehen, hurrengo orduetan zientzia fikziozko obra bat entzungo zutela ohartarazi zuten entzuleei. Ohartarazpena ez zen nahikoa izan, ordea.

Orduak aurrera joan ahala, geroz eta jende gehiago hasi baitzen irratira deitzen, entzuten ari zirengatik erabat izututa. Histeria kolektiboak astindu zuen biztanleria; eta, dibertsioa arrisku bilakatzen hasi zen.

Irratiak gizartean eragiteko duten gaitasuna frogatzen du *The War of the Worlds*-en emisioak. Ustez oharkabean eragindako izua izan zen Wellesek 1938an eragindakoa; baina, kasuan kasu, teknika berdina *gerrilla komunikatiboa* egiteko erabili da. Horrela izan zen Hala Bediren kasuan, adibidez.

2004ko ekainaren 22an *Suelta la Olla* programa mitikoko kideek —irradiaren hasierako urteetan sortu zen magazina, eta gaur egun saio ospetsuenetarikoa izaten jarraitzen du— Garoñako zentral nuklearrean gas ihes bat egon zela asmatu zuten. Albistea faltsua zen, baina haien ustez edozein unetan gerta zitekeen arrisku baten inguruan ohartarazteko egin zuten.

Santa Maria de Garoñan (Burgos) zegoen zentral nuklearra *Nuclenorrena* zen —Iberdrola eta Endesaren enpresarena, alegia—. 1971tik 2013ra egon zen aktibo, eta 2017an hura behin betirako ixteko agindua eman zuen Gobernuak. Hala ere, 2022ra arte luzatu zen ixte prozesua. *Greenpeace*, *Ekologistak Martxan* eta *Eguzki* bezalako kolektiboek gogor kritikatu zuten nuklearraren funtzioa hasieratik, eta hura ixtea exijitzeko kalera atera dira, behin baino gehiagotan.

Wellesek bezalaxe, irratsaioarekin hasi aurretik, hurrengo orduetan entzuleei fikzio bat entzungo zutela iragarri zitzairen:

[...] Hurrengo orduetan zehar, fikziozko kontakizun bat biziko dugu; inoiz errealitate bihurtu ez dadin espero duguna.

Ohartarazpenak ez zuen ezertarako balio izan. Denbora aurrera joan ahala, mesfindatza beldur bilakatzen hasi zen, Wellesen kontakizunarekin bezala. Magazina eten zuen Mirandako «auzokide» baten deiarekin hasi zen antzezpena:

—*Kaixo, entzuten didazue?*

—*Bai, entzuten zaitugu. Bolumena igoko dugu, ea hobeto entzuten diogun elkarki. Kontaiguzu.*

—Bada... oso nahastuta gaude; jendea oso urduri jartzen hasi da. Ni Mirandako erdigunean nago, eta oraintxe autobus bat pasa da, Guardia Zibilaren bi autok eskoltatuta. Nahiko azkar igaro da, bete-beteta. 20-30 pertsona egongo ziren barruan, batzuk manta eta guzti. Anduva polikiroldegira eraman dituzte. Garoñako zentral nuklearrean ihes bat egon dela zabaltzen hasi da hemendik. Herri honetan beti dago usain txarra, eta zentral kaskar honekin udan usaia trinkotzen da; baina zentrolean ihes bat egon dela zabaltzen ari da. Zeozer dakizue?

Hala Bediko kideek segurtasun zerbitzuei deiak eginez, istorioa sinesgarriagoa egiten hasi ziren. Dei bakoitzean Poliziak eta segurtasun saileko kideek dena normaltasun handiz zegoela adierazten zieten, noski; errealitatean ez baitzen inongo gas ihesik egon. Hala Bediko esatariek, aldiz, ezbehar guztiak aukera onak izan daitezkeela erakutsita, egoerari buelta ematen jakin zuten.

Lakuako komisariara deitu dugu, bai; Mirandako auzokidearen deia iritsi aurretik, gainera. Añana eta Gaubean dagoen Poliziaren presentziari buruz galdetu diegu, baina esan digute ez dagoela ohi baino polizia gehiago.

Espejoko entzule batek ikusi duen helikoptero militarra aktibo egoteko itxurazko arrazoirik ez dagoela ere aipatu digute; baina ez da lehenengo aldia izango Poliziak esaten digunaz ez fidatzeko arrazoiak ditugula.

Uneoro «konfirmaziorik gabeko» informazioa ematen ari zirela errepikatzen zuten *Suelta La Ollako* kideek; baina, hala eta guztiz ere, beldurrak erraz irabazi zion arrazonamenduari. Gasteizko jende ugari seme-alabak ikastoletatik atera eta hiriburutik alde egin zuen; Gamarrako igerilekuak, Garoñatik nahiko gertu zeudenak, itxi egin zituzten; eta Hala Bediko telefonoa kolapsatzen hasi zen. Emakume batek izu-atake batek jota deitu zuen:

—Esaiguzue zer gertatzen ari den! Zer ezkutzatzen digute? Mesedez, Mirandako gizonak deitu duenetik denbora dexente igaro da. Nola da posible oraindik ezer ez jakitea? Mesedez, milaka pertsonen bizitzaz hitz egiten ari gara. Sarraski bat izan daiteke. Mesedez! Nola ez gaituzte informatuko? Zergatik ez dira neurriak hartzen ari? Nola hitz egin dezakezue hain lasai?

—Nondik deitzen ari zara?

—Gasteiztik.

—Ulertzen dut ematen ari garen datuekin kezkatuta egotea.

—Baina mesedez! Urik edan ezin dela esaten ari zarete! Ate guztiak erabat itxita ditut. Zer egin behar dugu? Ganbaran ezkutatu? Guztiak hil arte itxaron?

—Uste dut informazio argia exijitu behar dugula, ezta? Oraindik ez daukagu baieztapen ofizialik. Momentuz lasai egoten saiatu behar gara.

—Baina, mesedez! Atzo helikopteroak zeuden, gaur ere. Noiz lasaituko gara, guztiok hilda gaudenean?

66 urte aurrerago Estatu Batuetan gertatu zen antzera, irratiak jendearengan izua sortu zuen. Robin Sharma idazleak esan zuen legez, «beldurra beharrezko emozio bat da bizirauteko, baina menderatzen gaituenean, mugatzen gaitu». Ez zebilen oker Sharma; izuak erabat mugatu baitzuen entzuleen arrazoitzeko gaitasuna.

Erreakzio guztiak, noski, ez ziren horren alarmistak izan. Langraiz Okako irakasle batek, esaterako, tonu askoz lasaiagoan deitu zuen irratira. Hala ere, bere kezka, antzekoa zen.

—Kaixo, Patxi naiz. Radio Vitoria eta beste irratieta deitzen aritu naiz baina kolapsatuta daudela dirudi. Gaur ikasleen oporrak hasten dira eta ez dakigu zer egin. Errepideak moztuta daude eta helikoptero militar bat ere hegaka dabil. Zerbait larria gertatu da?

—Daukagun azken berria Mirandako gizon batek esan diguna da: Mirandako auzokide batzuk autobusetan Tobalina polikiroldegira eramaten dituztela, eta han duxatzen ari direla. Garoñarekin zerikusia izan dezakeela diote.

—Hemendik ere Garoñarena komentatu dute. Baina ez dakigu ezer, ezta?

—Ez daukagu informazio ofizialik, baina badirudi teoria sinesgarritasuna irabazten ari dela.

Honelako *gerrilla komunikatiboek* histeria kolektiboa sor badezakete ere, agerikoa da pertsona bakoitzak bere erreakzionatzeko modua daukala. Emisioaren ostean, batzuk Hala Bediren aldarrikapenaren alde agertu ziren; baina, beste batzuek alarma soziala

eragiteagatik gogor kritikatu zituzten; haserrearen haserreaz. Programaren amaieran, bigarren aldiz, fikzioa zela argitu zuten.

—*Gaur goizean, 10:05ean iragarri dizuegu gaur fikziozko programa bat egingo genuela. Suposatzen dugu zuetako askok ez duzuela zati hori entzun [...] Hala ere, bihar prentsaurreko bat emango dugu gainerako hedabideei gure irati-antzezlanaren arrazoiak emateko.*

—*Barkamena eskatu nahiko nieke larritu diren pertsona guztiei. Guk ere goiza izerditan igaro dugu estudio bero honetan, baina merezi izan duela pentsatzen jarraitzen dugu.*

[...]

—*Besterik gabe, besarkada eta muxu bat guztiontzat.*

—*Eta hau ez dadila inoiz gertatu; saihestu dezagun. Saihestu dezakegu.*

—*Agur, eta bihar arte.*

Kazetaritzaren etika eta deontologia alde batera utzita, «teknika ohartarazle» honek behin baino gehiagotan frogatu du bere eraginkortasuna handia dela. 2004ko ekainaren 22an Garoñako zentral nuklearraren ustezko arriskuaz ohartarazteko balio izan zuen; Hala Bediren 40 urteko bidaia honetan, emisio historiko eta gogoratuena bilakatuz.

**Denbora aurrera joan ahala,
mesfindatza beldur
bilakatzen hasi zen**